

HEZKIDETZA PLANA	2021-2023
Lauro Ikastola Koop.Elk.	Loiu (Bizkaia)

1. SARRERA

Begibistakoa da azken 6-7 urteetan gure gizartean antzemandako aldaketa; berdintasuna eta parekidetasuna kalean daude, matxismoa eta sexismoa, emakumeen kontrako indarkeria, misoginia, genero estereotipoak, bereizkeria eta diskriminazioa, LGBTBI+ fobia edo lodifobia bezalako hitzak gero eta sarriago entzuten eta kritikoki erabiltzen dira. Guzti hau Feminismoak hartutako indar eta espazio handiagoari zor zaio eta etengabe barne-eztabaidan dagoen mugimendu honen borrokak gizarte parekide eta berdintsuago baten bidean jarri gaitu, zalantzarik gabe. Hala ere, tamalez soldata-arrakala, genero-arrakala esparru teknologikoan, lanaldi partzialen feminizazioa, lan prekarizatuenean feminizazioa, talde-sexu-erasoen eta emakumeen aurkako indarkeria modu berrien areagotzea, emakumeen parte hartze eskasagoa espazio publiko-politikoan, lan ez ordainduetan eta zaintza lanak emakumeen gain jarraitzea, hedabideetako artikulu, tertulia eta saio nagusienetan emakumeen agerpen eskasagoa, “feminazi” irainak jasotako arretak, feminismofobiaren hedapena...aurrean ditugu. Desparekotasun sexisten adierazleak ugariak dira, beraien iraunkortasuna islatuz.

Kontzeptu hauei buruz gogoeta egitean ulertu dezakegu, bete-betean, Jule Goikoetxea irakasle ta ikerlariak 2019an aurkeztutako talde-ikerketa baten ondorioetan kokatutako esaldi borobila: «*Patriarkatua ez dago desegite bidean, oso ongi birkokatu da*». Gizarte parekideago bat eraiki nahi duten mugimendu, kolektibo eta agenteen aurkako etsaitasuna modu sotilean beti, baina gero eta modu nabariagoan antzematen hasi gara, kezka handiz.

Zentzu honetan, eta **EAE-ko HEZKUNTZA SISTEMARAKO II. HEZKIDETZA-PLANA (BERDINTASUNAREN ETA TRATU ONAREN BIDEAN 2019-2023)** dokumentuan esaten den bezala, ikastola funtsezko eragile sozializatzailea da; ikastetxeak ezinbestekoak dira ikasleen artean botere-harremanak eraldatzen laguntzeko eta berdintasunean oinarritutako eta indarkeriarik gabeko hezkuntza bermatzeko. Era berean, espazio egokia da ikasle guztiak sexu-identitateen aniztasunarekiko errespetuan sozializatzeko.

2. AURREKO IKASTURTEETAKO IBILBIDEAREN LABURPENA

Lauro Ikastolan, 2014-2015. ikasturtean hasi ginen **HEZKIDETZA PLANA** martxan jartzen. Azterketa eta ikerketa sakona eginez, eta emaitzak oinarrizko diagnostiko dokumentu batean sintetizatuz, ikastolako arlo eta eremu gehienak behatu genituen eta **zentru hezkidetzaillea** bihurtzeko egin beharreko bide luze eta konzientea marrazten hasi ginen, berdintasuna ikastola osoan hedatzea helburu izango zuena.

Ordura arte, bazegoen “*praktika on*” eta sistematizatu gabeko ekintza multzoa, maiztasun finko gabe eta irakasle zehatzen kontzientzia feministaren arabera gauzatzen zirenak etapa desberdinetan (berdintasun gaiarekin loturiko artikuluen irakurketa eta lanketa, hezkidetzako balioak jorratzen zituzten filma eta laburmetraien inguruko eztabaida, efemeride historikoen komentarioa, emakumeen ekarpen sozial eta historikoa eta beraien eskubideen aldeko mugimenduen lanketa sakonagoa...). Etapen arabera gorabehera handiak zeuden praktika hauetan; Bigarren Hezkuntzan gizarte arloko eta hizkuntza arloko irakasle/ikasgaietan ardaztuta zeuden, zoritxarrez, hein handi batean.

Oinarrizko diagnostiko hau gauzatzeko arlo jakin batzuk behatu ziren, hala nola **ahozko eta idatzizko Hizkuntza eta Komunikazioa** (web gunean, guraso eta familiekiko komunikazioak, zenbait ikasgaietako saioetan, pertsonalarekiko komunikazioetan...), **Ospakizun bereziak** (Martxoaren 8a Azaroaren 25a, Inauteriak eta mozorroak, Gabonak, esnezko hortzen erorketa...) **Kanpoko espazioen erabilera** (lehia-joko eta nagusiki futbolarak irabazi edo kolonizatutako espazioak, mutilak-erdigunea/neskak-periferia eta bazterrak tankerako segregazio markatua antzemanaz) eta **hezkuntza material eta baliabideak** (emakumeen irudia zaintza eta etxeko zereginekin loturik irudi, testu eta adibideetan, ahalduntzeko aukera eskasa ematen duten erreferente errepikakor eta urriekin).

Esan bezala, 2014-2015 ikasturtean ekin genion erronkari eta, ordutik, 6 ikasturte luze hauetan zehar makina bat ekintza sortu edo ekarri ditugu gurera. Batzuk azaletik ikusi eta landu ditugu eta esperimentu gisa baliogarri izan zaizkigu. Beste batzuk sakonago landu eta errepikatu ere egin ditugu, gure irakasle eta ikasleentzat aberasgarri izan direlako. Azkenik, baieztatu dezakegu praktika eraginkorrenak gure egunerokotasunean ardaztu eta sustraitu ditugula.

3. IKASTOLAN SISTEMATIZATUTAKO EKIMEN HEZKIDETZAILE NAGUSIAK ETA HEZKIDETZA ZUTABEEKIKO LOTURAK.

Hona hemen urte hauetan Lauro Ikastolan **sistematiko bihurtu diren** nagusien zerrendaketa, eta HEZKIDETZA osatzen duten 8 gai edo zutabe nagusiekiko duten lotura. Martxan jarritako ekimenak anitzak dira, adin eta hezkuntza-maila bakoitzari egokituta.

<p>HEZKIDETZAREN 8 ZUTABEAK (<i>EAE-KO HEZKUNTZA SISTEMARAKO II. HEZKIDETZA-PLANA: BERDINTASUNAREN ETA TRATU ONAREN BIDEAN 2019-2023</i>)</p>	<p>Lauro Ikastolan 2014/2015 eta 2020/2021 artean gauzatutako ekimen aipagarrienak (<i>Oharra:hauek ez dira aurrera eraman diren guztiak.</i>)</p>
<p>1. Pentsamendu kritikoa sexismoaren aurrean</p>	<p>*irakaslegoarentzako formazio saio desberdinak antolatu dira, eta oraindik pendiente daude (COVID-19 dela eta, antolaketa eten zen 2019-2020 ikasturtean).</p>
<p>2. Hizkuntzaren eta irudiaren erabilera ez-sexista</p>	<p>*seinaletikaren berrikuspena, zenbait kartelen aldaketa komunetan. Ikastolako aisialdi guneetan ikusgai egongo diren margo, irudi eta biniloetan genero-ikuspuntua sartu da, parekidetasun eza eta estereotipoak baztertuz. *Sensibilizazio jarduerak familia eredu berrien inguruan LH etapan. *Eskola bizitzan, esamolde zuzen eta egokiak landu sentsibilitate guztiak errespetatzeko LH etapan.</p>
<p>3. Emakumeen jakituriaren integrazioa eta haien ekarpen soziala eta historikoa</p>	<p>*"Hezkidetzeta eta ikas-komunitatea" proiektua, guraso eta kanpoko bolondres euskaldunen partaidetza aktiboa: Emakumezko kirolari euskaldunak/ikasle ohiak/gurasoak/kanpoko kolaboratzaileak bere lanbideaz, zaletasunaz, bere bizipenaz... ikasleen aurrean mintzatzeraz edota jarduera bat gauzatzera gonbidatu, hitzaldi-solasaldi formatoan. *Otsailak 11: Emakume eta neska zientzialarien nazioarteko egunean, ekintzen finkatzea etapa guztietan, sentsibilizazio lanak eta erakusketak burutuz. *Inspira Proiektuan urtero parte hartzeko LH6. mailan, nesken artean zientzia eta teknologiarako bokazioak sustatu nahi dituen.</p>
<p>4. Gatazken eraldaketa baketsua, hezkidetzako elkarbizitzarako proiektuen bidez.</p>	<p>*LH etapan, neska eta mutilen arteko parekotasuna bermatzen da taldeak eratzerakoan eta ardura ezberdinak banatzerakoan: ikasle laguntzaileak, eko-ordezkarriak, giza-ordezkarriak, Marrubi taldea... *KIVA -PROIEKTUA martxan da Ikastolan, LHn sentsibilizazio lana eginez lehenengo, eta, pixkanaka, bere figura, protokolo eta prozedurak LHn eta batez ere goiko zikloetako gatazken konponketan sustraituta daude.</p>
<p>5. Autonomia pertsonala eta independentzia</p>	<p>*DBHko goi zikloko formazio saioetan, Feminismoaren hiztegi oinarritzakoari buruzko saioak.</p>

ekonomikoa	<p>*LHko hitzaldi saioetan, ikasleen amen bidez, erreferente profesional eta lanbideetako estereotipoak apurtzeko pausuak eman dira.</p> <p>* DBH4-DBHO1+2 mailetan, Enpresa eta Ekonomia ikasgaiak eskeintzen dira: edukietan bereziki azpimarratzen dira hezkidetzak edukiekin lotuago dauden atalak: langileen eskubideak, familia-lana uzarketa eta indarrean dagoen legedia, kontratu motak...</p>
6. Espazioak ikastetxean, eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak	<p>*"Baloirik gabeko eguna" finkatu LH. Talde-jokoak bultzatzeko ekintzak.</p> <p>*DBHn pilotara jolasteko guneen erabilera arautu, mutilen eta nesken txandak finkatu. Futbola ez diren kirolen inguruko saioak antolatzea.</p> <p>*HHn, Esnezko hortzaren erorketaren inguruan, Maritxu Teilatukoaren irudia ekartzea. Gabonetan Mari Domingiren agerpena Olentzerorekin batera, erabilitako materialetan euskal mitologiako emakumezkoen pertsonaien erabilera.</p> <p>*Ihauerietan, Klaseko-mozorroaren prestaketan eta mozerroen aukeraketan hausnarketa sartzen joan, estereotipo kultural, erlijioso eta arrazistak ekiditeko. Mozorro sexisten inguruko sentsibilizazio kanpainiak DBHn, ihauteri eta ikastolako jai eguna hurbiltzerakoan.</p> <p>*Jolastoki eta bestelako espazioak era zuzen eta dibertsifikatua banatu dira LHn, aukera guztiak errespetatu eta atenditu ditzagun (kirol-eremuak, joku-librea, mahai-jolasak, irakurketa, etab.).</p> <p>*Eskolaz kanpoko eskaintza dibertsifikatu eta hedatu da, bereziki kultura atalean, inor diskriminatuta gera ez dadin genero arrazoiengatik edo aukera faltagatik.</p>
7. Berdintasunezko hezkuntza afektiboa eta sexuala	<p>*DBHn Ohiko Heziketa afektibo-sexuala formazio saioetaz gain, arauz kanpoko genero-portaerak normalizatzeko sentsibilizazio lana, kartel, poster eta edukietan barneratuz.</p> <p>*Familian heziketa sexuala tratatu eta fokatzeko hitzaldia urtero gurasoentzat.</p> <p>*Mintegi desberdinetako proposamenen ondorioz, DBHko Liburutegia feminismo eta emakume gaiei buruzko liburu/komikiekin hornitzen joan gara.</p>
8. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta indarkeria kasuetan esku hartzea	<p>*DBHko mailan, genero ikuspuntua aplikatzen hasi gara zenbait hutsegiteen aurreko neurrietan (huitsegiteen gehiengoa mutilen partetik dator).</p> <p>*M8EguneroDa! kolektibo feministaren sorrera, ikasleekin urtero dinamizazio lana eta M8 Asteko ekintza guztien antolaketaren ardura duena DBH etapan (eta Batxilergoan ere ekintzaren bat antolatuz).</p> <p>*Beldur Barik lehiaketan parte hartzea DBHn ikasturteren batean.</p> <p>*Gazteak Berdintasunean 2.0 Emakumenderen programa 2018-2019 ikasturtean Dbh4. mailako mutilekin gauzatu zen.</p> <p>* BFA/DFBtik jasotako diru-laguntza , erakunde honen enpresa laguntzaile den Gehilan 2000 Kontsultoriarekin, etapa desberdinetan formazio saioak burutu dira.</p> <p>*Azaroak25ean Genero Indarkeriaren aurkako nazioarteko egunean, ekintzen finkatzea etapa guztietan, sentsibilizazio lanak eta erakusketak burutuz.</p> <p>*Maiatzak 17: Homofobiaren aurkako Nazioarteko egunean, ekintzen finkatzea etapa guztietan, sentsibilizazio lanak eta erakusketak burutuz (posterrak, hitzaldiak, laburmetrai emanaldiak, eztabaidak).</p>

Ikasturte hauetan, hezkidetzak ekintzak biderkatu dira, eta irakasle kopuru handiagoa izan da ikastola hezkidetzaillea bihurtzeko pausuak eman dituztenak. Irakasleentzako sentsibilizazio ekintza eta formazio saioek, genero-ikuspegia orokortu

ez baina nagusi egin dute, ikastolako zenbait aspektuetan aldaketa behin-betikoak ekarri.

Erronka argia da: curriculumaren genero-ikuspegitiko lanketa nahiko orokortua badago ere, sentsibilizazio eta kontzientzia maila altuagoa lortu behar dugu, irakasleen inplikazio erabateko eta orokor batera ailegatu nahi bagara.

4. HURRENGO URTEOTARAKO HELBURUAK (orokorrak, espezifikoak eta ekintzak):

-Helburu orokor edo estrategikoak:

Hezkuntza komunitate osoa inplikatzeko duten helburuak epe-luzeakoak direla kontuan izanik, **aurreko planeko helburu nagusiei eusten diegu:**

1. Ikastolako harremanetan bikaintasun maila bat lortzea. Harremanak errespetuzkoak izatea, arduratsuak autonomoak, konfiantzazkoak, pertsonen zaintzaren aldekoak, ingurumen eta ikastolarekiko errespetuzkoak. Beraz, hezkidetzaren oinarriko printzipioa lortzea.
2. Edukien ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan bikaintasuna: bai ikasle nola irakasleek jaso eta erabiltzen dituzten edukiak *“etiketarik gabekoak”* izatea, Amelia Barquín irakasle eta formatzaileak esan ohi duen legez.
3. Hezkidetzaren printzipioak islatuko zituen eskola antolaketa diseinatu eta abian jartzea, hasi espazio fisikotik eta etapa bakoitzean, haurtzarotik hasita jorratuko zen hezkuntza inklusiboa, ez-sexista, ez-arrazista, ez-homofoboa eta ez-klasista bat bermatuz.

-Helburu espezifikoak eta horiek lortzeko ekintza zehatzak. KRONOGRAMA.

Helburu espezifikoak	Ekintzak	Ikasturtea	Arduradunak	Adierazleak
-Irakaslegoaren inplikazioa, hezkidetzaren helburuak ikasgaietako urteko plangintzan eta egunerokotasunean txertatzeko	-Formazio saio egoki eta zehatzak prestatu, etapara egokitutakoak.		Zuzendaritza, Hezkidetzaren Arduraduna	-Saio kopurua eta jasotako iritziak baloratu
	-Hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzio inguruko informazioa lurtzea.			-Berritzegunetik/Emakundetik /beste iturrietatik eskuratutako informazio eta materialen banaketa eta erabilpen maila ikasgaiak.
	-Hizkuntzaren erabilera ez-sexistaren inguruko formazio saioa antolatzea			-Jasotako iritzien balorazio kualitatiboa

-Ikasleen pentamendu kritikoa sexismoaren aurrean sustatzea	-Etapa desberdinetan dauden arrisku ohikoagoen inguruko kontzeptuen lanketa (ziberjazarpen era berriak, feminismoak landutako hiztegi oinarrikoa, heziketa emozionalaren oinarriak)		Tutoritza saio berezia/k,	-Saio/en balorazio kualitatiboa, klas ean, jokoen bitartez.
-Elkarbizitzaren kontrako hutsegiteen artean, emakumeen kontrako indarkeriari dagozkionak murriztea.	-Ikasturte bakoitzeko Elkarbizitzaren kontrako Hutsegiteen estatistika osatzea: bilketa (zenbat, non, nortzuk (E/G)) hausnarketa, familiei honen berri ematea eta ekintzen diseinua.		Zuzendaritza, koordinatzaileak, Hezkidetzarduradunak	-Familien partetik jasotako iritziak, gogoetaren osteko neurri desberdinen proposamena
-Klabe diren adinetan (LH5.6/ DBH3-4) mutilen artean Maskulinitasun Berri/Berdinzaleak hezitu eta hedatu.	-Maskulinitasun Toxiko eta ohikoak gizonezkoiei eta gizarte osoari ekarritako kalteak bistaratzeko ekintzak/saioak. Erreferente maskulino egokiak erabiliz horretarako: Gizonen Taldeak ekarri ikastolara Piper Txuriak, Zipriztintzen..		Hezkidetzarduradunak	-Saioen balorazio kualitatiboa
-Klabe diren adinetan (LH5.6/ DBH3-4) nesken artean ahalduntze prozesu eta lidergo gaitasunak irmotzea, ikastolako ekimenetan beraien partaidetza aktiboa sustatu..	-Nesken berriazko ikuspegi eta estiloak taldeari ekarritako onurak agerian jartzeko ekintzak ikasgaietan sustatu.		Tutoritza	-Ekimen eta proposamenen jatorriaren azterketa -talde-giroaren balorazioa ikasturte hasiera eta bukaeran
	-DBH+BATX antolatutako hitzaldiak, guraso amak? (LHko ekimena DBHra luzatu)			-Saioen balorazio kualitatiboa.
-Hezkuntza ez-formala ikastola hezkidetzailleagoa eraikitzeko erabili (eskolaz kanpoko	-Ekolaz kanpoko ekintzen eskaintza zabaldu, jarduera berritzaileak berreskuratuz		Zuzendaritza/Ko ntseilua	-Matrikulazio datuen azterketa

ekintzak: kirol eta kultura jarduerak)	/martxan jarritz: adierazpen dramatikoa, psikomotrizitatea, bideoforumak, irakurketa-taldea, autodefentsa-tailerra, maskulinizazio maila edo sesgo eskasagoko kirol berriak...			
-Sare eta mugikorrek: ikasleei indarkeria forma berriak identifikatu eta ekiditeko baliabideak luzatu.	-Etapak bakoitzera egokitutako hitzaldiak, irakurketa materialak, material audiobisuala prestatu eta lantzea, ez soilik tutoritza arloan (hizkuntzak, informatika, etika, plastika...). Aplikazio berrien berri emon.		Hezkidetzak arduraduna, Tutoritza	-Proiektuaren bukaeran bizikidetzaren kontrako falten inguruko hausnarketa (kantitatibo eta kualitatiboa)
-Efemeride nagusien ospakizun egunetako ohiartzuna areagotu: *O11 *M8 *M17 *A25	-Etapak guztietan eta lkasgai guztietan ekintza osagarri eta bateratuak aurrera eramateko konpromisoa hartzea. -Etapak guztiak inplikatzeko dituen ekintza bateratuen bat planifikatu eta aurrera eramatea.		Mintegiburuak	-Proiektu bateratuak aurrera eramatea posible izan den, ikasgaiarteko proiektuak aurrera eramateko aukera egon den begiratu.
-Etapak guztietako irakasleei, Hezkidetzak gaien inguruko informazio, material, saioen berriak erregularki luzatzea	-Berritzeguneko Hezkidetzak Mintegi saio bakoitzaren ostean , informazio aukeraketa eta dagokion etapa arduradunei luzatzea.		Hezkidetzak arduraduna, Etapak zuzendariak	-Ikasturte bakoitzaren bukeran, materialen erabileraren inguruko galdeketa.
-Umeengan rola gainditzeko tresnak eta umeen zenbait jokabideei buruzko kontsultak argitzeko informazio eta prozedurak luzatu.	-Haur Hezkuntzako irakasle eta tutoreentzako berriazko formazio saioen antolaketa (familia ereduak, sexu identitatea, genero estereotipo eta rola...)		HHko zuzendaria, Zuzendaritza pedagogikoa	-Saioen balorazio kualitatiboa
- "Zelan etiketarik gabe hezitu" inguruko jarraibide eta orientabideak HHko familiei eskeini	-HH zikloko gurasoentzako formazio saio partehartzaileak antolatu (gelaka edo urteka)		HHko zuzendaritza, Zuzendaritza Pedagogikoa	-Saioen balorazioa: partehartzaile kopurua, galdetegiak familiei.

6. Memoria eta Ebaluazioa:

Aurreko HEZKIDETZA PLANAREKIN egin bezala, proiektuaren epearen bukaeran eta jarraipena eta datu bilketa burutu ostean, memoria idatzi eta ebaluazioa egingo dugu, aurrera eramateko ardurak dituzten eragile guztiekin.

Komenigarria litzateke HH/LH/DBH/BATX zikloetan heziketza gaiak nola edo hala landu dituzten kideekin bilera bat egiteko ohitura ezartzea, praktika onak argitzeko, emaitzak baloratzeko eta zikoen arteko zubiak eraikitzen hasteko, proiektuaru jarraitasun bat eta osotasun handiagoak ematearren.

“Nuestro lenguaje, nuestra forma de relacionarnos,
nuestra actitud transmite ideología.
El currículo oculto, puede negar lo que
el currículo explícito afirma y, sin duda,
es más creíble el oculto, porque es
el que realmente transmite
lo que llevamos en nuestro interior”
(Mariam Moreno, 2004)